

Herri euskalduna eraikitze curriculumuma

a) Euskal curriculumuma edo nazio alienatu baten hezkuntza eredua

Euskal curriculumuma ezin da herri *normal* baten hezkuntza eredua izan. Aitzitik, euskal curriculumak euskal herri alienatua egoera nazional menderatu eta besterendu horretatik ateratzeko hezkuntza jarduna izan beharko luke.

Hezkuntza helburu hori lortzeko, nazio nortasunaren egitura osatzen duten elementuak garatu eta normalizatzea da zeregin nagusia, dudarik gabe. Alegia, euskara, euskal kultura eta ideologia, euskal nazio kontzientzia, euskal historia, euskal lurraldea eta euskal nazioaren ezagutza eta ideologia irakatsi eta txertatu beharko lituzke hezkuntza sistema horrek haur eta gazteen artean; euskal nortasunaren erroetan hezi beharko lituzke.

Ez da nahikoa, noski, nazio ezaugarri horiek *irakastea*: irakaste hutsak ez du balio, kontua ez delako soil-soilik *jakitea*; jakiteaz gain, euskal balio horiek kritikoki ebaluatu ere egin behar dira, elementu horien zer-nolakoa problema bihurtu behar da, problema gisa biziarazi alegia, balio horiek ikasleen jarreran eta jokamoldeetan txertatzeko. Era batean edo bestean, bizitzea zerbait “jakitea” baino gehiago da.

Elementu horiek osatzen duten naziotasunaren ideologia eta kultura ikasleen nortasunean txertatzea da, beraz, erronka nagusia, eta ez Euskal Herriari buruz *ikasi* behar omen luketen gai zerrenda luze eta aspergarria. Nire ustez, behinik behin, elementu horiek osatzen dute euskal hezkuntza nazionalaren bizkarrezurra, eta ez ideologizaziorik ez dakarten jakingai akademikoek. Auzi horretan zorrotz jokatu ezean, gureak egin du.

Izan ere, herri menderatu bat (esaterako, gurea) ezin da irten nazio egoera alienatu honetatik, bere egoera horren kontzientzia hartzeko elementu linguistikoak, kulturalak, ideologikoak eta politikoak aldatzeko hausnarketa kritiko orokorrik egiten ez badu. Jakina, hausnarketa orokor horren barruan, oinarritzko eragile bat hezkuntza sistema bera da. Gauzak aldatzeko borondaterik ez baldin badago, alferrikakoak dira curriculumaren ekarpen distiratsu guztiak.

b) Euskal curriculum desalienatzaile baten balizko eredua

Euskara

Ahozko eta idatzizko gaitasun komunikatibo formala eta ez-formala normaltasunez garatzea lortu behar dute ikasleek, erdararen pare gutxienez. Euskarazko jariora berezkoa ez duen ikaslearen hautua badakigu zein den: hizkuntza nagusia (erdara) da bere pentsamenduaren eta sentipenen altzoa.

Euskal kultura

Euskal kulturak, kultura espainolak eta kultura frantsesak bezala, gizartearen nazio kulturak dituen premiei erantzuteko gai izan beharko luke; hau da, nazio erkidego batek gaurko munduan dituen funtzioak bete beharko lituzke. Kulturaren definizioak buru hainbat aburu badira ere, gure

auzi honetan, kultura kontzeptuak mugari zehatzak ditu bere luze-zabalean: nazioaren esparrua da nazio kulturaren zentzua eta egitekoa, eta nazio kulturaren hainbat arlo, onerako edo txarrerako, bizi-bizirik daude oraindik estatuen jardunean. Beha ditzagun auzoan ditugunak, dioguna egiaztatu nahi izanez gero.

Euskal ideologia

Ideologiak nazio erkidegoaren nortasuna ebaluatu eta kohesionatzen du, nortasun hori osatzen duten elementuen balioaz eta funtzioaz pentsarazten digunez gero. Euskal ideologiarik gabeko euskal kulturak *kulturalismora* lerratzeak arriskua dakar. Beste alde batetik, ez nuke ahortzi nahi euskal hizkuntzarik eta kulturarik gabeko ideologia abertzaleak beste muturrean duen arriskua, alegia, politikak *berez* dena konpontzen omen duelako leloa. Bi-biak dira bide okerrak: lehenak boterearen (politikaren) eragina gutxien du, eta bigarrenak gauza bertsua egiten du hizkuntzaren eta kulturaren gizarte indarrarekin.

Euskal historia

Herri eta gizarte oro historia jakin baten ondoriozko egitatea da. Nazio zapaltzailearen ideologiak unean uneko errealitatea historiarik gabeko egoera dela sinetsarazi nahi digu edo, historia hori interpretatzerakoan, bere zapalkuntza estali edo zuritu nahi du. Lan ideologiko hori hezkuntzaren bidez egiten du, besteak beste. Hori dela-eta, kontzientzia historikorik gabeko herri menderatuak nekez eraiki dezake eraitsi dioten errealitate eta oroimen historikoa. Dena da historikoa: iragana ez ezik, oraina eta etorkizuna ere bere enborreko adar ditu historiak.

Euskal lurraldea

Euskal Herriari eraitsi dioten beste nazio osagarri bat lurraldea izan da. Alde fisikoa eta bi estatu zapaltzaileek eragindako zatiketa geografikoa ditugu, baina are larriagoa izan da lurraldearen galera eta hondamena: lurraldeak Euskal Herriaren neurria eta zentzua galdu du herritar askoren artean. Galera hori nazio nortasunaren gainerako elementuak indargabetu ahala gertatu da. Euskal herritarren enborra (nortasuna) usteldu den heinean, adarrak (lurraldea, hizkuntza, kultura...) ere iraungi dira. Horregatik, hezkuntzaren zeregin nagusi batek hauxe izan beharko luke: euskal nazio erkidegoak ezinbestekoa duen lurraldetasunaren adarra berezko nazio enborrari atxikitzea.

Euskal nazio politikoa

Lehen esan dugunez, esanahi eta nortasun politikorik gabeko euskalduntasunak ez luke bermerik aski izango eraitsitako Euskal Herria berreraikitzeke. Alderantziz ere arrisku bertsua ikusi dugu: euskararik eta euskal kulturarik gabeko politikagintzak ezin du herri hau garai batean izandako herri euskalduna bilakatu berriro ere. Beraz, nazioaren alderdi politikoa, batetik, eta alderdi linguistikoa eta kulturala, bestetik, modu egokian uztartu behar ditugu, eraitsitakoa modu egokian eraikitzeke. Eskola eta hezkuntza nazionalaren zereginak ikasleen balio sisteman euskaldun izateak dakarren ondorio nazionala eta ideologikoa txertatzea izan beharko luke.

c) Euskal curriculum: euskaldun *osoaren* hezkuntza sistema

Euskaldun *osoa* euskal nazio nortasunaren egitura osatzen duten elementuak modu orekatuan garatzen dituen subjektua genduke. Euskaldun *osoa* izatea ez litzateke, alegia, euskalduntasunaren alderdi linguistikora mugatzen den heziketa eredu: horretaz gain eta horrekin batera, euskaldun izateari darizkion gainerako elementuak ere barneratu beharko lirateke hezkuntza jardunaren harian.

Izan ere, hezkuntzaren helburua euskararen alderdi linguistikora bakarrik mugatzen badugu, dimentsio hori bera ere hein batean bakarrik garatuko da. Hots, gaur eta hemen euskaldun izateak bere baitan dituen arazoek kontzientziarik ez duen euskalduna erraz barnera daiteke erdal munduaren zurrumbiloan.

Horrenbestez, euskal curriculumaren helburu bat zera dela esango nuke: ikaslearen alderdi linguistikoa, kulturala, ideologikoa, historikoa, nazionala eta politikoa modu egokian, elkarrekiko modu osagarrian barneratu eta garatzea. Hortxe dago euskal curriculumaren gako nagusia.

Euskal curriculumak ezin da izan ohiko curriculum eredu akademikora mugatzen den jarduna. Ohiz kanpoko herri zapaldu baten egoerak behar duen hezkuntza sistema berezia behar du gure herriak, herri gisa berriro ere herri euskalduna izango bada. Nolako arazoa, halako erantzuna.

Labur-zurrean: Euskal Herriaren egoera latza problema bihurtzeko gaitasuna duen curriculumak behar dugu; bestela esanda, ezaguera, jarrera eta ideologia kritikoa duten ikasleak sor ditzakeen hezkuntza jarduna. Epelkeriaren bidetik jarraitzen badugu, ez dugu zer eginik. Gogortu egin behar dugu gure izaera, eta ez herri “normalizatu” baten gisara jokatu; hori, izan ere, geure burua engainatzea besterik ez da azken buruan.

Curriculum berezi eta kritiko bat ataka larrian dagoen herri batentzat.

Joxe Manuel Odriozola (euskara irakaslea)